AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Baldintza tekniko hauen helburua da Hernanin ikuspegi feminista batetik emakumeei zuzendutako aholkularitza juridikoa eskaintzeko zerbitzua kontratatzea.

2. SARRERA

Emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren ondorio larrienetako bat da indarkeria matxista; egun gure jendarteko arazo larrienetako bat bihurtu da.

Hernanin emakumeentzako aholkularitza juridikoaren zerbitzua 2021ean jarri zen martxan, Kulturarteko Plaza Feminista irekitzearekin batera.

Geroztik, emakumeenganako diskriminazio eta indarkeria egoeren gaineko informazio juridikoa eskaintzen da ikuspegi feministatik. Horixe da zehazki zerbitzu honen helburu nagusia, emakumeek aholkularitza juridiko espezializatua jasotzeko eskubidea bermatzea.

Izan ere, administrazio publikoei dagokigu indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzeko bitartekoak jartzea; horretan dihardu aholkularitza juridikoaren zerbitzu hau.

Egitasmo honek, beraz, ezaugarri hauek ditu:

- Hernaniko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean jasotzen da, zehazki 4. ardatzean: Indarkeria matxistarik gabeko herria; detekzioa, arreta eta erreparazioa.

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente pliego de condiciones técnicas es la contratación del servicio de asesoría jurídica para mujeres desde una perspectiva feminista en el municipio de Hernani.

2. INTRODUCCIÓN

La violencia machista es una de las consecuencias más graves de la desigualdad entre mujeres y hombres, convertido en la actualidad en uno de los problemas sociales más graves.

En Hernani el servicio de asesoría jurídica para mujeres se puso en marcha en 2021, coincidiendo con la apertura de Kulturarteko Plaza Feminista.

Desde entonces se ofrece información jurídica sobre situaciones de discriminación y violencia hacia las mujeres desde una perspectiva feminista. Este es exactamente el objetivo principal de este servicio, garantizar el derecho de las mujeres a recibir asesoramiento jurídico especializado.

De hecho, nos corresponde a las administraciones públicas garantizar la protección y atención integral a las mujeres que combaten la violencia machista y poner los medios para ayudarles en estos procesos de empoderamiento; como es este servicio de asesoría jurídica.

Las características de este proyecto son las siguientes:

- Está recogido en el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Hernani, concretamente en el programa enmarcado en el eje nº 4: Ciudad libre de violencia machista; detección, atención y reparación.

- Emakumeei zuzendutako zerbitzua izango da aholkularitzarena.

- Indarkeria matxista kasuez gain, (genero indarkeria, sexu erasoak, sexu jazarpena...) bestelako gaien inguruko aholkularitza ere emango da, hala nola, banaketak, dibortzioak, mantenu pentsio edota bisita erregimenei loturikoak...

- Atzerritartasun Legeari buruz ere emango da aholkularitza.

- Prozesu judizialen aurrean, emakumeen ahalduntzea sustatuko da; euren eskubideen inguruko ezagutza emanaz eta euren egoeraren gaineko erabakiak hartzeko segurtasuna eta lasaitasuna ahalbidetuz.

- Zerbitzu honek indarkeria matxista kasuak detektatzea ahalbidetuko du.

- Zerbitzu honek, Kulturarteko Plaza Feministan eskaintzen diren gainerako zerbitzu eta ekimenekin harremana garatuko du, aldian-aldian ekimen bateratuak ahalbidetuz, esaterako, elkar zaintzarako taldearekin.

Hortaz, zerbitzu hau herrian eskaintzen jarraitu nahi da goian aipatutako arrazoi horiengatik guztiengatik.

2. ESKU-HARTZEAREN INGURUKO XEHETASUNAK

Zerbitzu honek bi ardatz izango ditu nagusiki:

- <u>Aurrez aurreko arreta.</u> Zerbitzua telefonoz nahiz aurrez aurreko hitzorduen bidez emango da. Aurrez aurreko saioei emango zaie lehentasuna. Urtean gutxienez 90 orduko aholkularitza emango da, hilean gutxienez aurrez aurreko 6 ordu + 2 ordu hitzorduen prestaketa eta kudeaketetarako. Hitzordu hauen egunak urte hasieran adostuko dira Berdintasun Arloarekin. Aurrez aurreko zerbitzu hau emakumeei zuzendua da.

- <u>Formazio saioak.</u> Urtean gutxienez hiru formazio saio emango dira, bakoitza 2/3

- Será un servicio dirigido a mujeres en lo referente a la asesoría.

- Además de ofrecer asesoramiento en materia de violencia machista (violencia de género, agresiones sexuales, acoso sexual...), también se tratarán temas como separaciones, divorcios, impago de la pensión, el incumplimiento del regimen de visitas etc.

- Se proporcionará asesoramiento tambien sobre la Ley de Extranjeria.

- Se fomentará el empoderamiento de las mujeres frente a los procesos judiciales, aportando conocimiento de sus derechos y facilitando seguridad y tranquilidad en la toma de decisiones sobre su situación.

- Este servicio posibilitará la detección de casos de violencia machista.

- Este servicio tendrá relación con otros servicios e iniciativas que se ofrezcan en Kulturarteko Plaza Feminista, posibilitando periódicamente iniciativas conjuntas como por ejemplo, con el grupo para el cuidado mutuo entre mujeres.

Por todo ello, se pretende seguir ofreciendo este servicio en la localidad por todas las razones arriba mencionadas.

2. DETALLES RELATIVOS A LA INTERVENCIÓN

Este servicio girará en torno a dos ejes fundamentales:

- <u>Atención presencial.</u> El servicio se prestará tanto por teléfono como a través de citas presenciales, priorizando estas últimas. Se ofrecerá un asesoramiento de al menos 90 horas anuales, con un mínimo de 6 horas presenciales + 2 horas mensuales para la preparación y gestión de citas. Las fechas de las citas se acordarán a principios de año con el Área de Igualdad. Esta atención presencial estará dirigida sólo a mujeres.

- <u>Sesiones de formación.</u> Se impartirán al menos tres sesiones formativas anuales, de 2/3 horas cada una, dirigidas tanto a agentes de la localidad como a diferentes

ordukoak, herriko eragile nahiz udal sailei zuzendutakoak, sortzen diren beharren arabera. Berdintasun Arloarekin zehaztuko dira saio hauek.

- Horrez gain, gutxienez 30 orduko poltsa bat gordeko da, urtean zehar sor daitezkeen larrialdiko egoerei edota kasu bereziei arreta emateko, izan aurrez aurre edota telefono bidez.

- Berdintasun Arloarekin koordinazioa mantenduko da urte osoan zehar zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko. Horretarako urtean gutxienez hiru jarraipen bilera aurreikusten dira.

- Zerbitzurako hitzorduen kudeaketaz Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzaileak arduratuko dira. Emakumeek hitzordua eskatu beharko dute telefonoz edo Kulturarteko Plaza Feministara bertara joanda.

- Koordinatzaileek 48 ordu lehenago emango diote hitzorduaren berri zerbitzuaren arduradunari. Hitzordurik ez badago, kopuruaren erdia kobratuko du enpresa esleipendunak, eta beste erdia ordu poltsara bideratuko da. Egunean bertan jakinarazten bada hitzorduak bertan behera geratu direla, kopuru osoa kobratuko da.

- Zerbitzua urte osoan zehar emango da, abuztuan, udaberriko oporretan eta neguko oporretan izan ezik. Jai egun ofizialetan ere ez da zerbitzurik emango.

- Doako zerbitzua izango da

- Zerbitzua egokitu beharra badago, adierazitako ordu-kopurua eta ordutegiak aldatu ahalko ditu Berdintasun Arloak, beti ere enpresa esleipendunaren onespena izanda.

3. BALIABIDE MATERIALAK

- Baliabide materialei dagokienez, Udalak lokala eta oinarrizko ekipamendua (altzariak...) jarriko ditu. Aholkularitza zerbitzua Kulturarteko Plaza Feministan emango da (Florida 28).

departamentos municipales, en función de las necesidades que surjan. Estas sesiones se concretarán con el Área de Igualdad.

- Además, se reservará al menos una bolsa de un mínimo de 30 horas para atender situaciones de urgencia o casos especiales que puedan surgir a lo largo del año, ya sea de forma presencial o telefónica.

- Se mantendrá la coordinación con el Área de Igualdad durante todo el año para garantizar el buen funcionamiento del servicio, para lo cual se realizarán al menos tres reuniones de seguimiento al año.

- La gestión de citas para el servicio se hará a través de las coordinadoras de Kulturarteko Plaza Feminista. Las mujeres que deseen acudir a la asesoría, deberán solicitar cita telefónicamente o acudiendo a Kulturarteko Plaza Feminista.

- Las coordinadoras comunicarán la cita a la persona responsable del servicio con 48 horas de antelación. Si no hay citas previstas, se abonará a la empresa adjudicataria la mitad del importe; y la otra mitad se destinará a la bolsa de horas. Si se comunica la anulación de citas en el día mismo, se abonará a la empresa adjudicataria la totalidad del importe.

- El servicio se ofrecerá durante todo el año, excepto en agosto, vacaciones de primavera y de invierno. Tampoco se ofrecerá servicio los días festivos oficiales.

- El servicio será gratuito.

- En caso de que fuera necesario adecuar el servicio, el Área de Igualdad podrá modificar tanto el número de horas y los horarios indicados, con la aprobación en todo caso de la empresa adjudicataria.

3. MEDIOS MATERIALES

- En cuanto a los medios materiales, el Ayuntamiento aportará el local y el equipamiento básico (mobiliario...). El servicio de asesoramiento se prestará en Kulturarteko Plaza Feminista (Florida 28).

- Los gastos derivados de la campaña de

- Herritarrei zerbitzuaren berri emateko egingo den komunikazio kanpainako gastuak Berdintasun Arloaren kontura izango dira.

- Egitasmoan zehar sortu daitezkeen bestelako behar materialak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

- Funtzionamenduko eta mantentze-lanetako gastuak (garbiketa, argindarra...) Udalaren kontura izango dira.

- Utzitako lokal eta materialak ondo zainduta eduki behar dira, horretarako beharrezko diren bitartekoak erabiliz.

4. PROIEKTUA

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten enpresek jarduketa memoria bat aurkeztu beharko dute. Egitasmo horretan gutxienez puntu hauk garatu beharko dira:

- Oinarri teorikoa eta lan filosofia
- Helburu orokorra eta helburu espezifikoak
- Lan metodologia eta lan taldearen balioak
- Genero ikuspegia txertatzea proiektuan
- Koordinazio eta ebaluazio proposamena

Dokumentazioa euskaraz aurkeztuko da.

5. TALDE ESLEIPEDUNAREN BETEBEHARRAK

- Zerbitzua modu egokian garatzeko behar diren bitarteko pertsonal, tekniko eta azpiegiturazkoak izatea.

- Lan talde teknikoa proiektuaren koordinatzaile izango den abokatu batez osatua egongo da; bera izango da herriko eragileekin zein Udal Berdintasun Arloarekin komunikazioa mantenduko duena

comunicación para dar a conocer el servicio correrán a cargo del Área de Igualdad.

- Cualquier otra necesidad materias que surja a lo largo del proyecto correrá a cargo de la empresa adjudicataria.

- Los gastos de funcionamiento y mantenimiento (limpieza, luz...) serán por cuenta del Ayuntamiento.

- El local y los materiales cedidos se mantendrán en perfecto estado de conservación, utilizando para ello los medios necesarios.

4. PROYECTO

Las empresas que deseen participar en este concurso deberán presentar una memoria de actuación. En dicho proyecto deberán desarrollarse los siguientes aspectos:

- Fundamentos teóricos y filosofía de trabajo
- Objetivo general y objetivos específicos
- Metodología de trabajo y valores del equipo
- Incorporación de la perspectiva de género en el proyecto
- Propuesta de coordinación y evaluación

La documentación se presentará en euskera.

5. OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD ADJUDICATARIA

- Disponer de los medios personales, técnicos y de infraestructuras necesarios para el correcto desarrollo del servicio.

- El equipo técnico estará compuesto por una abogada o un abogado que será la persona encargada de coordinar el proyecto, así como de mantener la comunicación tanto con los agentes locales como con el Área de Igualdad Municipal.

- Desarrollar adecuadamente su labor

- Beren lan profesionala behar den bezala egitea.

- Zerbitzuak iraun artean Udal Berdintasun Arloarekin behar adina bilera egitea zerbitzuaren berri eman eta aurrera begirako proiektuak zehazteko. Udalak hala eskatuz gero baita Berdintasun Kontseiluarekin eta Udal arduradun politikoekin ere.

- Zerbitzuaren jarraipena Berdintasun Arloak egingo badu ere, talde esleipenduna, udalak hala eskatzen badio, udaleko beste departamentu batzuekin elkarlanean aritzea bultzatuko da, Zerbitzu Sozialekin eta Udaltzaingoarekin, adibidez.

- Beharko balitz, Hernaniko beste eragile edo erakunde batzuekin ere koordinazioa izango du: eskolak, gaztelekua, osasun zentroa, Ertzaintza...

- Urte amaieran (abendua-urtarrila) zerbitzuaren memoria eta ebaluazioa aurkeztu beharko du Berdintasun Arloan. Memorian datu hauek jasoko dira gutxienez:

    - Zerbitzura gerturatu diren erabiltzaile kopurua, sexua, adina eta jatorriaren arabera eta zenbat aldiz gerturatu diren.
    - Erabiltzaileen eskari motak edo hizpide izan diren gaiak.

    - Erabiltzaileek erabili duten hizkuntza
    - Egindako formazioen inguruko informazioa: landutako edukiak, parte hartzaileak...
    - Talde esleipendunak zerbitzuaren inguruan egiten duen balorazioa
    - Interesgarria ikusten den bestelako informazio edo dokumentazioa.

Proiektua eta txosten guztiak euskaraz aurkeztuko dira, eta Udalak hala eskatuz gero, baita gaztelaniaz ere.

- Memoriarekin batera, erabiltzaile bakoitzaren “Harrera fitxa” aurkeztuko da Berdintasun Arloan. Fitxa horretan jaso beharreko datuak aurretik adostuko dira

profesional.

- Mantener con el Área de Igualdad Municipal cuantas reuniones sean necesarias para informar acerca del servicio y determinar los proyectos a llevar a cabo. En el caso de que así se lo solicite el Ayuntamiento, también se reunirá con el Consejo de Igualdad así como con las y los representantes políticos municipales.

- Si bien el seguimiento del servicio será realizado por el Área de Igualdad, se impulsará la colaboración de la entidad adjudicataria con otros departamentos municipales si el Ayuntamiento así lo requiere, como Servicio Sociales y Policía Municipal.

- Si fuera necesario, se coordinará, así mismo, con otros agentes o instituciones de Hernani: centros escolares, gazteleku, centro de salud, Ertzaintza...

- A finales de año (diciembre-enero) deberá presentar en el Área de Igualdad una memoria y una evaluación del servicio. El informe contendrá, al menos, los siguientes datos:

    - Número de personas usuarias que han acudido al servicio, por sexo, edad y procedencia, así como número de veces que han acudido al mismo.
    - Tipos de solicitud de las personas usuarias o los temas que se han tratado.
    - Idioma empleado por las personas usuarias.
    - Información acerca de las formaciones que se han realizado; temas tratados, participantes...
    - Valoración de la entidad adjudicataria respecto al servicio.
    - Otro tipo de información o documentación que se estime interesante.

El proyecto y todos los informes estarán redactados en euskera, y en el caso de que lo solicite el Ayuntamiento, también en castellano.

- Junto con la memoria, se presentará en el Área de Igualdad la "Ficha de Acogida" de cada persona usuaria. Los datos a recoger en esta ficha serán previamente consensuados con las

Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzaileekin.

- Ikasturte hasieran Berdintasun Arloarekin adostutako proposamenean aldaketaren bat egin nahi izanez gero, Berdintasun Sailari jakinarazi beharko zaio, oniritzia eman dezan.

- Zerbitzua aurrera eramateko behar den material suntsigarria (fotokopiak, materiala...) talde esleipendunak hartuko du bere gain, alegia esleipen prezioaren barruan egongo da.

6. UDALAREN BETEBEHARRAK

- Udal Berdintasun Arloak prozesu osoaren jarraipena egingo du, horretarako beharrezko diren koordinazio bilerak eginez eta talde esleipendunak egiten dituen eskaerei erantzunez.

- Aldian-aldian, Berdintasun Arloa talde esleipendunarekin bilduko da programaren koordinazioa eta jarraipena egiteko.

- Zerbitzuak ondo funtzionatzeko eta behar bezala garatzeko beharrezkoak diren iradokizun, aldaketa etab., proposatzea.

- Berdintasun Arloak erabakiko du, talde esleipendunarekin batera, zerbitzurako aurreikusitako ordu-kopurua handitzea edo txikitzea, sortzen diren beharren arabera.

coordinadoras de Kulturarteko Plaza Feminista.

- Cualquier modificación al inicio del curso en la propuesta acordada con el Área de Igualdad, deberá ser comunicada al Departamento de Igualdad, para su visto bueno.

- El material destruible necesario para el desarrollo del servicio (fotocopias, material...) será a cargo de la entidad adjudicataria, es decir, estará incluido en el precio de adjudicación.

6. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO

- El Área de Igualdad realizará un seguimiento de todo el proceso, llevando a cabo cuantas reuniones de coordinación sean necesarias y respondiendo a las solicitudes efectuadas por la entidad adjudicataria.

- El Área de Igualdad se reunirá periódicamente con la entidad adjudicataria para la coordinación y seguimiento del programa.

- Propondrá cuantas sugerencias, modificaciones, etc. sean necesarias para el buen funcionamiento del servicio y su correcto desarrollo.

- El Área de Igualdad determinará, junto con la entidad adjudicataria, el incremento o disminución del número de horas previsto para el servicio, en función de las necesidades que surjan.

Hernanin, 2023ko urriaren 3an.



Maialen Apezetxea Lujanbio
Berdintasun Teknikaria